

Bastidako Ardoaren Parkea Lakuako Gobernu berriaren zain

Beharrezko finantzazioa lortuz gero, Bastida ardoari eta Arabako Errioxari buruzko lehen parke tematikoaren egoitza izan liteke 2011n. Horri esker, duela urte batzuk abiatutako ardoaren ibilbide turistikoan txertatuko litzateke, eta EAera iristen diren turistentzat beste pizgarri bat izan liteke.

DANIEL UDALAITZ

ORAINGOZ, egoitza Bastidan izango lukeen ardoari eta Arabako Errioxari buruzko parke tematikoa eraikitzeko, proiektua eta borondatea baino ez dago. Dagoeneko, proiektua Arabako Foru Aldundiaren mahai gainean dago, baita EAeko gobernuarenean ere. Hori gauzatze-ko finantzazio sendoa behar da, hasieran zazpi milioi eurotik gorako aurrekontua eskatuko lituzkeen egitasmoaz ari baikara.

2006. urtean Frank Gehry arkitekto ospetsuak diseinatutako Marqués de Riscal-en 'Ardoaren Hiria' izeneko luxuzko esparrua ireki zen Eltziegón. sei urte lehenago Guardian ireki ziren Calatravaren Ysios upeltegiekin batera, ardoaren alde turistikoaren buru da.

Abiapuntu gisa EAera hurbiltzen diren turisten interesa areagotzea argudiatzen da; interes hori, egun, Bilboko Guggenheim museoak, nagusiki, eta Donostiako Kontxako badiak biltzen dute. Parkeak turistei aisialdia, kultura eta gastronomia aukera zabalagoak eskaintzea du xede, turistak EAEn luzaroago egon daitezen eta, hortaz, egungo turismoari eta, ondorioz, ekonomiari balio erantsia ekar diezaien.

Horrenbestez, parke tematikoaren proiektua egun abian den

ardoaren euskal ibilbide kulturean txertatuko litzateke. Ibilbide hori bere garaian aldizkari honetan azaldu zen: Calatravak diseinatutako Ysios upeltegia, Guardian; Gehryk diseinatutako Marqués de Riscal upeltegia, Eltziegón; eta inguruko beste hainbat upeltegi modernizatu

Hauteskunde ondorengo egoera politikoak eta krisiak berak, aldiz, proiektua aurrera ateratzeko azken erabakia atzera dezakete –erabaki hori Jaurilaritzaren eta Arabako Aldundiaren esku dago–. Horrela ondorioztatu dugu Bastidako Udalarekin eta proiektua diseinatu duten arkitektoekin kontaktuan jarri ondoren. Bai Udala eta baita arkitektoak ere erabakiarren zain daude. Hermanos Larreina arkitektoek aldizkari honi azaldu



Arabako Errioxako ardoak 525 milioi euro fakturatzen ditu urtean

Arabako Errioxak 13.000 biztanle ditu 350 kilometro koadrotan. EAEko populazio dentsitate txikienetakoa duen eskualdea da, baina baita aberatsenetakoa ere, upeltegi, mahastizaintza eta ardogintza industria sendoa medio. Mahastiek 13.000 hektareatik gorako azalera hartzen dute —duela hamar urte baino %23 gehiago—, 1.700 ustiategitan eta 400dik gora upeltegitan banatuta. 3.100dik gora ekoizle eta 5.000 inguru langile daude. Mahastiak Arabako nekazaritza ekoizpen osoaren %40 dira.

Arabako Errioxak Errioxako Deitura Jatorri osoan lantzen diren mahastien %20, saldutako litroen %30 eta salmenta zenbakien %35 hartzen du. Errioxako Deitura Jatorri osoak 2006an 251 milioi litro inguru saldu zuen guztira, eta horietatik 79 milioi Arabako Errioxari zegozkion.

Salmenten %70 euskal barne merkatuari eta Madrigoari dagokie. Gainerako %30 kanpoko merkatuan salten da. Kanpoko salmenten buru Erresuma Batua da, salmenten laurdenarekin, eta ondoren AEB. 2007an Errioxako Deitura Jatorri osoko salmentak 31,6 milioi litrotik gorakoak izan ziren bertan, %13,7 hazkundearekin, herrialde horretako 2000. urteko merkaturatze zifra hirukoiztuz.

Arabako Errioxako instalazioak eta ekoizpen sistema goitik behera modernizatu dituzte azken urteotan. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza handiak jaso dituzte. 1995. eta 2005. urteen artean, eskualde horretan 300 milioi eurotik gorako inbertsioa egin da, Deustuko Unibertsitateko irakasleek egindako azterketaren arabera.

diote duela hilabete batzuk Jaurlaritza interesaturik agertu zela proiektuarekin, baina aitortzen dute Lakuako exekutiboak momentu honetan beste lehentasun batzuk izan ditzakeela. Hala ere, beraien ustez krisi garaietan, hain preseski, posible da horrelako proiektu sendoak aurkeztea.

Nolakoa litzateke ardoaren parke tematikoa?

Oraindik ez dago guztiz zehaztua, bultzatzaileek, dagoeneko, funtsezkoena aurreratu badute ere. Hainbat hilabete dira proiektua lantzen ari direla. Duela hilabete batzuk Bastidako Udalak Hermanos Larreina arduradun goren dituen Enopolis Consulting enpresari hasierako proiektua egiteko enkargua egin zion. Proiektuaren arabera, asmo handiko interpretazioa, dastatze eta azterketa zentroa litzateke. Tokia ez dute oraindik zehaztu, baina Ebroko ibaiertzean nahiz Kantabriar mendikatean hainbat kokaleku daude. Bultzatzaileak mendikatearen inguruan jartzearen aldekoak dira.

Parke tematikoak bi eremu zehatz eta bereizi izango litzateke. Eremuetako batek interpretazio

zentroa delakoa hartuko luke, eta 2.000 metro koadro inguru izango litzateke erakusketetarako. Bigarren eremua 40.000 metro koadroko lursaila litzateke eta Errioxako ingurumen ondasuna dibulгатzea izango luke helburu. Eraikinak bisolairu eta sotoa izango litzateke eta, bertan, bisitarien ardoaren historiari buruzko informazioa eta azalpenak jasotzeko aukera izango lukete. Ikus-entzunezko bitartekoak eta beste zenbait elementu

Bastidako ardoaren parke tematikoa 2011n zabal liteke, bi urteko eraikuntza lanen ondoren

interaktibo erabiliko dituzte mahastizaintzari eta ardogintzari lotutako zirkunstantziak eta lanak azaltzeko. Helduek nahiz haurrek beren adinari eta ezagutzei egokitutako eskaintza izango dute.

Bigarren eremu handian, aurreikusitako lursail zabalean, Errioxako ingurumen arloa ezagutzeko aukera izango da. Testuinguru

horretan, Ebro ibaia eta Kantabriar mendikatea funtsezkoak dira kalitate handiko ardoa lortzea ahalbidetzen duen eskualdeko mikroklimateko. Bisitarien ardo batzuk Errioxa Garaikoak direla eta beste batzuk Errioxakoak edo Errioxa Beherekoak direla bereizteko aukera izango dute. Bereizketa honek zerikusi handia du Errioxako mikroklimatekin. Errioxako ardotan adituak diren garrantzi handia ematen diote bereizketa honi, izan ere, horien iritziz, Errioxa Garaikoek kalitate hobea dute. Dena den, kontsumitzaile bakoitzak nahiago duena hobesten du, eta horrek ez du zertan bat etorri bereizketa horiekin.

Zazpi milioitik gorako aurrekontua

Proiektua, finantzatzeko iturriak eta bermeak izanez gero soilik jarriko da abian. Hasierako aurrekontua zazpi milioi eurotik gorakoa da. Proiektuak 24 hilabeterainoko tarte aurreikusten du zentroa eraikitzeko. Horregatik, ardoaren parke tematiko berria 2011. urtean irekitzea aurreikusten da. Bultzatzaileen arabera, parkeak urtean 50.000 eta 150.000 bisitari bitartean jasoko ditu. ■